



**KORTAZAR, Jon**  
**Euskal Literatura XX. mendean**  
 Zaragoza : Pramés, 2000.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Literaturako katedraduna den Jon Kortazar Uriarte filología erromanikoan doktorea da, Lauaxetaren olerkigintza bere tesiaren gaia izan zelarik. Doktoretza atzeman eta urtera eman zuen argitara bere tesia, 1986an hain zuzen, Bilboko Desclee de Brouweren etxearaen eskutik, *Teoría y práctica de la poética de Lauaxeta*. Aurretik ere, Uriarteren *Poesía bascongada dialecto vizcaino* eskuidazkiaren edizioa apailatu zuen tesina, baita 1987an argitara eman ere. Alta, Kortazarren ikerketa esparru hauta ez da XIX. mendean sakonkiegi barneratzen, eta XX.eko modernitatea aisago bide du gogoko. Horrela ematen digu aditzera Uriarteren lanaren edizioa ondu ostean Zarateren prosa ikertu izanak ere, eta horrela frogatu du bere ondorengo bibliografiarik gehienak ere. Alde batera uzten baditugu Lauaxetaren lanen tajaturiko edizio kritikoak -Ereinen *Olerkiak*, Labayruren *Azalpenak* eta EEEren *Antzerkia* eta *Arrats Beran*- XX. mendeko euskal literaturaren historia, kritika eta edizio antologikoak dira Kortazarren arrobiak ekoizturikoa. Azkeneko liburua, euskaraz zein galizieraz agertu dena, euskaraz egiten ari den poesiarik berrienaren laginez osaturiko liburua dugu, bere ikasleak izaniko Kirmen Uriberen nahiz Castillo Suárez altsasuarraren bertsoak jasotzen direla. Kritika arloan, ordea eta besteak beste, *Luma eta Lurra: euskal poesia 80ko hamarkadan* liburu tzarra atera zigun 1997an, alabaina bere lanik klasikoen zein aipatuenetakoa *Laberintoaren oroimena* dukegu, Donostiako Barojarenean 1989an estrainekoz eta bigarrenez Ereinekoek 1994ean atera zutena Saiopaperak sailean. Azkenik, eta literaturaren historiari baga-gozkio, bi dira, funtsean, Kortazarrek ateratako liburuak. Alde batetik *Euskal Literaturaren Historia Txikia* dugu, aipatu Ereinen Saiopaperak bilduma berean 1997an atera zena, Etxepareengandik erromantizismora doan ibilbidea, gutxiz gehien institutuetan erabiltzeko bide dena, ahozko literaturari buruz dakarren zati luzeak ederki asko goratzen badu ere. Bestea, berriz, *Literatura Vasca: Siglo XX* liburuki eza-guna da, Etor argitaletxetik 1990ean elki zena, eta lau urte beranduxeago ere berrargitaratu dena.

Gaurkoan mintzagai dakargun lana, hortaz, aipatu azkenaren euskarazko aldaera osatua dugu. Ez da egokitutako itzulpenen honakoa Kortazarrek erabiltzen duen lehenbiziko aldia. Gorago atera zaigun *Luma eta Lurra* horren erderazko bertsioa iazkoan atera zen *La pluma y la tierra* izenburupean, tamaina ttikiagotuan baina. Izan ere, *La pluma y la tierra* huraxe atera zuen argitaletxea bera da oraingoan *Euskal Literatura XX. mendean* karrikaratu duena, Zaragozako Prames etxea hain zuzen ere, eta Aragoi aldean euskararekiko dezaketen asmo onen zalantzarik ez badugu ere, bistan da sosen txin-txina dela agintzen duena, onerako zein txarrerako. Kasu honetan onerako izan dela bagaude, liburu eder eta mamitsu eskaini baitigute Pramesekoek geure literaturaren erakusgarri. Edozein modutan ere, eta ohi legez, eroslea da finean

azken hitza edukiko duena. Alabaina, oraingoan arrazoa tole bada Kortazarren liburu honi euskal literaturaren historian interesa duenak bere apalategian tokia egiteko. Jada, eta azken aurreko urteurrenaren txinpartak ahituta, konturatzeke joan zaigu XX. mendea, eta on da horren segituan mende osoa ikergai hartzen duen testua eskura edukitzea. Ezin filuskeria izan laurogeita hamarreko hamarkadaren gainean jarduten duen 17. kapituluak 35 orrialde hartu izana. Bestalde eskertzekoa da Kortazarrek darabilen bibliografia zabala, baita onartu duen kanpoko eragina ere. Honakoa arras ongi ikus daiteke bukaera aldera dakargun “Kritikalaria mende bukaeraren bidegurutzean” izenburua duen hitzatzean, non Anton Figeroa teoriko galiziarra bidaide hartuta hainbat arazo zehatzei buruz diharduen.

*Joxemiel Bidador*



**MORALES ARCE, Juan Antonio**

**La formación intelectual de los vascos. La Universidad de Oñati, desde las reformas ilustradas hasta su supresión definitiva (1772-1842)**

Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 1999.

Convendría dejar claro desde el principio que la obra de Juan Antonio Morales no es exactamente una “historia de la Universidad de Oñati”, una historia institucional de un centro educativo, sino que, más bien, es una “obra de tesis”, una investigación en la que, partiendo de un riguroso y exhaustivo conocimiento de ese centro educativo, se plantea como objetivo primordial la demostración de un ramillete de ideas: el calado de la Ilustración en el entramado educativo vasco, la importancia de la Universidad para la formación de las elites del País, su propia supervivencia vinculada a su politización y no a la solvencia económica ni a la eficacia educativa, etc.

El planteamiento de la obra de Morales Arce es el de, procurando superar la historiografía existente sobre la universidad (Lizarralde, Kagan), interesante pero insuficiente, al no haber consultado de forma exhaustiva la documentación existente, poder tener una conocimiento más acabado sobre la misma que permita reinterpretar el papel que jugó tanto desde un punto de vista de su propia importancia y desarrollo en el momento clave del tránsito del Antiguo Régimen al liberalismo, como de la responsabilidad en la formación de la clase dirigente vasca de este periodo. A este respecto, el esfuerzo para seguir la pista a documentación que hasta ahora no había sido tenida en cuenta, inédita en gran parte, me parece notable, consultando, además de los inevitables archivos de la propia Universidad, General de Gipuzkoa, Municipal de Oñati, los de la Universidad de Valladolid, General de Simancas, Histórico Nacional, Foral de Bizkaia, Territorio Histórico de Álava y Municipal de Vitoria. Gracias a ello ha podido reconstruir datos ajustados sobre opositores, cate-dráticos, matriculación de alumnos, financiación, etc.